



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Udal Euskaltegia (Basauri)

Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren oinarri espezifikoaren eredu, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritakoa eta Mantentze Lanen Arduradunaren kategoriari dagokiona.

Oker bat sumatu ondoren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2022ko abenduaren 28koa, 246 zenbakian, Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2009 Foru Dekretuko 17. artikuluan esaten duenez, jarraian berriz osorik argitaratzen da.

Basaurin, 2023ko martxoaren 30ean.—Basauriko Udal Euskaltegiaren Presidentea, María Elisa Arroyo Olaizola



**IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOEN EREDUA,
20/2021 LEGEAREN 6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOIA
ETA MANTENTZE LANEN ARDURADUNAREN KATEGORIARI DAGOKIONA**

1. Deitutako lanpostuak

Mantentze lanen arduradun lanpostu baterako deialdia egiten da, txanda irekiz, honako zehaztasunak dituena:

Lanpostu kopurua	Lanpostua	Kategoria	EUFALÉBA maila	H.S.	Hizkuntz eskakizuna	Derrigortasun data
1	Mantentze-lanen arduraduna	AP	8	D.A.	2	1992/01/01

2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrekarekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. Mantentze-lanen arduradun lanposturako hautatzeko deialdietan izena emateagatik tasaren zenbatekoa mantentze lanen arduraduneari dagokiena honako hau da: 5 euro.

2.3. Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo baliokidea eskatzen da.

3. Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak

Deialdi honen xede den lanpostuan, 2. hizkuntza-eskakizuna bete beharko da. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

Betekizun hori oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko da.

4. Hautaketa-prozesua

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia-kopurua bakarrik baloratuko da.

Lehiaketa ez da baztertzailerik izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien %25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 10.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.2. Bigarren zatia: euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailerik, 2. hizkuntza-eskakizuna duten eta nahitaezko izaera duen lanposturako hautagaien zatia. Nolanahi ere, maila horri dagokion euskararen ezagutza zehaztea eta egiaztatzea izango da proba.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Basauriko Udalarri erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin beharko da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketak ofizialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez



egiaztatetik salbuestekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia gai edo ez-gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako hautagai diren pertsonentzat. Inolako hizkuntza-eskakizunik eskatzen ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, mantentze lanen arduradun lanpostuan emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.



I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) *Esperientzia: gehienez 80 puntu*

a.1. Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

— Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, mantentze-lanen arduradun lanpostuan, lan egindako egun bakoitzeko 0,0274 puntu.

a.2. Esperientzia espezifiko.

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

— Deialdia egin duen Administrazioan mantentze lanen arduradun lanpostuan, egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0,00914 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) *Titulazioak eta probak gainditzea, karrerako funtzio finko edo lan-kontratu finkoko izaera lortzeko prozeduretan. Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei*

b.1. Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza (Herri Administrazio Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesionaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkarteen, Federazioetan) emandako edo homologatutako ikastaro-ordu bakoitzeko, 0,5 puntu, gehienez 20, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritik gero.